

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Estiloan ere egarri

“LAGUNA hausten den hilobiak leher egiteraino zurruta kantua egin litekeen mahaia izan behar luke, zer axola plastikozko lore zikin hauek dardaraka ontzi jausi zartatuaren lepoan, zer axola gure mozkorraldiaren puskailak aldare profanatu batean, zer axola du, bizitza hau ez da edangarria”. Koldo Izagirreren *Egarri egunak portualdean* nobelakoa da esaldia, aurrenekoa, apustu formal baten erakusgarri. Donostiako San Jeronimo kalean (*going underground*) aurkeztu zuen joan den astean eta han bildutako gehienok aldeztu aurretik irakurria genuen liburuak, ezohiko abiapuntua ezohiko aurkezpenarentzat.

1977ko giro politiko eta sozial nahasi, biolento, apasionantea angelu ugaritaz erretiratzen du istorioak: klase gorrotoa, sexu grina, sindikatuen sorrera, polizia-aren errepresioa, feminismoa, heroinaren lehen zamakatzak eta egarria, alkoholarena, gizarte berri batena. Aurreneko irakurrian *Sua nabi, Mr. Churchill?* liburuak ipuinen ildoan kokatuko nuke estilo aldetik, baina oraingoan apustua erradikalagoa da, elipsi sakonagoak, narrazio linealaren haustura gehiago; eta kontakizunaren kadentzia markatzen dute etengabe hiruak tar-tekatzaren diren esaldi laburrek, pintaketa horiek.

Grabagailuak 40 minututik gorako hizketa erregistratu du eta inpresionista ez, brotxa lodikoa beharko lehiotxo honetako kronika antzeko honek. Nabardura gutxi, zuzenean interesatzen zaidan puntura: Nerea Azurmendik egindako galderak ekarri zuen, nire ustez, eran-

tzun mamitsuena. Nobelaren idazkeraz galdetu zion, zenbait elementu gramatikali uko egin ote dion jakin nahian.

Izagirrek erantzun: “Prosa ulergarri bat idatzi behar-aren beharrez, euskalgintzaren izenean, azkenean prosa administratiboa idazten da, oso pedagogikoa; eta niri ez zait irteten. Ez dut laborategi bat muntatu estilo bat sortzeko, ez naiz ibili baliabide gramatikalak kentzen estilo bat lortzeko. Ezinezkoa iruditzen zait esplikatuz aritzea, ‘alegia’, ‘zeren’... Horrelakoak oso esplikatiboak egiten zaizkit eta ez zait batere gustatzen. Hor sortzen da, seguru asko, zuk diozun uko egitea, zenbait elementu gramatikal edo sintaktiko alde batera uztea. Horrek ez du lehenbizikoan ulermena errazten, baina nik uste dut horren bitartez belozidade desberdina ematen dizkiodala testuari eta niretzat inportantea da. Ez dakit hurrengo batean horrela idatziko dudan edo ez, baina honetan behintzat apustu hori egin nahi izan dut, uste nuelako behar nuela saio bat egin fondoaren eta formaren arteko batasuna lortze aldera”.

Kontu periferikoekin entretenituta ibiltzen gara maiz kulturaz idazten dugun kazetariak eta poztu nintzen aurkezpenean literaturaz hitz egin zelako, alegia formaz, estiloaz, hau-estetikoei buruz. Halako kontuen inguruko eztabaida serioak ugarituko balira, bestelako egarriak lastuko liguke eztabaida.



Koldo Izagirre eta Gorka Arrese, Susako editorea, liburuaren aurkezpenean.



ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure
artean
euskaraz



BIZKAIA
BIZIA